

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### MAÑUETAKO UDALA

#### **Jendaurrean jartzea Mañuetako Hiri Antolamendurako Plan Orokorren aurrerapena**

Udalbatzak, 2020ko urriaren 29ko bilkura berezian, erabaki zuen jendaurrean jartzea Mañuetako Hiri Antolamendurako Plan Orokorren aurrerapenaren agiria, iradokizunak eta beste aukera batzuk aurkez daitezen bi hilabeteko epean, iragarki hau ALHAOn argitaratu ondorengo egunetik aurrera, Lurzoruaren eta Hirigintzaren ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 90.3 artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz.

Aurrerapenaren agiria udal bulegoetan (Udaletxearen plaza, 5, Mañueta) aztertu ahal izango da bulego orduetan (astelehenetik ostiralera, 08:30etik 13:30era). Era berean, udal web orrian ere <http://www.banosdeebro.es/> egongo da ikusgai.

Mañueta, 2020ko azaroaren 2a

*Alkatea*

*FRANCISCO JAVIER GARCÍA PÉREZ DE LOZA*